

ZERGATIK EUSKARAZ?

Azpeitian euskaraz bizi gara eta horrela bizitzen jarraitu nahi dugu. Azpeitiarrok euskarari arnasa ematen diogu eta euskarak azpeitiarroi bizitzeko modu bat eskaintzen digu, gauzak ikusteko, pentsatzeko, sentitzeko... modu bat.

Beraz, euskara eta Azpeitia uztartuta daude eta elkarrekin egingo dute aurrera. Bide horretan, uztartze hori sendotzen, egiteko oso garrantzitsua du Azpeitiko ostalaritzak eta merkataritzak. Herriaren dinamikaren muinean daude eta euskarari arnasa emateko elementu gakoa dira.



Azpeitiko Euskararen Mahaiak euskararen erabilera sustatu nahi du herriko enpresa eta establezimenduen artean.

Horretarako, zenbait baliabide jarri nahi dizkizu eskura:

DIRULAGUNTZAK

EUSKARA IKASTEKO AUKERAK

ITZULPENAK ETA ZUZENKETAK

EUSKARAREN SUSTAPENA

TRESNAK

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Euskara Zerbitzua

euskara@azpeitia.eus

943 25 18 83

Azpeitia
Denontzat



i3 IRAURGI
BERRITZEN

UeMA
UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ZAPARRAIE

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala



AZPEITIAN bizi, lan, salerosi EUSKARAZ



EUSKARA ERABILTZEKO AHOLKU PRAKTIKOAK

Aztartu establezimenduaren egunerokoan zer leku egiten zaion euskarari.

Saiatu aurreiritziak albora uzten. Egin euskaraz, edonori eta edonon, hizkuntzaz aldatzeko arrazoi objektiboa izan arte. Aurrean duzun pertsonaren ezaugarrien, lekuen edo ikurren arabera ez utzi euskaraz hitz egiteari.

Baliatu ulermena euskara gehiago erabiltzeko. Solaskideak euskaraz ulertzen badizu, eutsi euskarari. Zeuk euskaraz egiteaz gain, solaskidea ere animatuko duzu euskaraz egitera. Beharra erakutsiko diozu. Gogoratu pertsona horiei euskaraz hitz egitea beste mundu bati, mundua ikusteko beste ikuspegi bat eskaintzea dela.



Adierazi zure nahia euskara erabiltzeko.

Erakutsi zure solaskideei zuretzat garrantzitsua dela euskara erabiltzea Azpeitian eta hautu hori eginda komunikazioa bermatzeko behar besteko laguntza eskaintzeko prest zaudela.

Eman zurekin euskaraz aritzeko aukera euskara hobetzen edo ikasten ari direnei
Erakutsi aurreratzen ari direla eta merezi duela euskaraz jakiteak. Euskaraz mantso eta trakets hasi bada ere, eutsi egoerari eta lagundu euskara batuaren makuluekin. Ez diogu "laguntzen" erdaraz hitz egitera pasata.

BALIABIDE ETA ZERBITZUAK

DIRULAGUNTZAK

Zure establezimenduan euskararen erabileran aurrera egiteko dirulaguntza lerro bat du Eusko Jaurlaritzak: LANHITZ.

EUSKARA IKASI

Euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditu Udalak. Euskaltegiak ostalaritza zein merkataritzako langileentzako egokitutako euskaraz eskolak ematen ditu.

ITZULPENAK ETA ZUZENKETAK

Udalak itzulpenak eta zuzenketak egiteko laguntza zerbitzua du. Bilera informatiboetarako edo bileretarako aldibereko itzulpena behar izanez gero, Udalak itzulpen maleta dauka erreserbatzeko aukerarekin.

EUSKARAREN SUSTAPENA

Euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko diagnostiko arina egin eta ekintza plana zehazteko aholkularitza Euskararen ziurtagirien informazioa: Bai Euskarari Ziurtagiria, Harrobi eta Bikain.

TRESNAK

ITZULI: Itzultzaile neuronal. Mugikorrerako ere eskuragarri

TELEGRAM: Bileretan aldibereko itzulpena egiteko aukera ematen du.

LANSAREAN: Euskarazko lan ataria. Enpresek hautagaiak aurkitzeko eta lan bila ari diren pertsonen euren burua eskaintzeko.

IRAGARKI LABURRAK: Euskarazko iragarkiak jartzeko gunea, online saldu, erosi, trukatu, oparitzeko...